

HERRITARREN FOROAREN APARTEKO BILERA

Bilera antolatu duen organoa:	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21en departamentua
Deialdia egin duena:	Hondarribiko Udala
Data, tokia eta ordua:	2008ko irailaren 25a Hondarribiko Udaleko Pleno Aretoa 19:00etatik 20:45etara
Harremanetarako pertsona:	Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): - Aitor Gonzalez - Edurne Simón - Naroa Susperregi
Telefonoa:	943 492 215
Helbide elektronikoa	info@izadi21.net

Gai-zerrenda:	<p>1- Etorritakoei ongietorria</p> <p>2- Biodibertsitatea, Paisaia eta Ingurumen Bektoreen Mahaiaren bileran sortutako zalantzei buruzko azalpenak</p> <p>3- Ekintza Planaren zirriborroko 3. lerro estrategikoaren inguruko eztabaida</p>
----------------------	--

PARTE HARTZAILEAK:

Norbanakoak:

- Aitor Lekuona
- Asun Yarzabal

Elkarteak:

- ACUBI (Asociación de Consumidores y Usuarios del Bidasoa): Belen Martinez
- E.I.B.Eb(Euskal Izurde eta Balezaleen Elkarte): Enara Marcos
- Mintxipress: Eider
- Surbesta Abesbatza: Rosa Gomez

Erakundeak:

- Bidasoa bizirik: Izaskun Iridoy
- Hondarribiko Udaletxea: Ion Elizalde (Ingurumena eta Agenda 21en zinegotzia)
- Txingudiko Zerbitzuak: Miguel Ángel Muñagorri, Josean Rodrigo

Idazkaritza Teknikoa:

- Izadi 21: Aitor Gonzalez, Edurne Simón eta Naroa Susperregi

1-Etorritakoei ongietorria

Ion Elizaldeki etorritakoei ongi etorria eman zien eta partaide bakoitzak bere burua aurkeztu zuen. Ondoren, Izadi 21eko teknikariei hitza pasa zien.

2- Biodibertsitatea, Paisaia eta Ingurumen Bektoreen Mahaiaren bileran sortutako zalantzei buruzko azalpenak

Herritarren Foroko Biodibertsitatea, Paisaia eta Ingurumen Bektoreen Mahaiaren 1. lan saioan (irailak 18) Ekintza Planaren zirriborroaren 6. eta 7. lerro estrategikoetan barneratutako ekintzak aztertu eta ekarpenak egin zituzten bileran parte hartutakoek. Aipatu lerro horiei dagokionez, zenbait zalantza sortu zirenez, Foroaren bilera gehigarri bat antolatzea adostu zuten bertaratutakoek. Idazkaritza teknikitik egokia ikusi zen Foroaren bilera hori mahai guztiei batera aztertzea egokitzen zaien 3. lerro estrategikoa eztabaidatzeko ere erabiltzea.

6. eta 7. lerro estrategikoen inguruan sortutako zalantzei helduz, honakoak izan ziren aztertu eta argitu ziren ekintzak:

6. lerro estrategikoan argitzeko zegoen puntu bakarra 6.2.3. ekintzaren edukiari zegokion:

- 6.2.3 ekintza "Jaitzubiako padura erditik zeharkatzen duen errepeidea desagertzeko pausoak aurrera eramatea bultzatu": Urdaibaiko Biosferaren atzetik, Jaitzubiako hezeguneak Euskal Herriko garrantzitsuenak direla kontuan izanik, eta egun N-1 erreperidera ematen duen eta Jaitzubia zeharkatzen duen errepeideak babestutako ingurune natural hori zatikatzen duenez, habitata kaltetu egiten du, fauna bereziki (autoek zanpatuta hilak agertzen dira, kutsadura akustikoa jasaten dute, etab.). Hori dela eta, gure babestu horretan bizi diren espezieen biziraupenerako eta onurarako Udalak, gainerako erakunde eskumendunekin batera, errepeidea kentzeko aukera azter dadila adierazi nahi du 6.2.3. ekintzak, betiere aurrez bertako bizilagunengan eragin ditzakeen kalteak eta ekarriko lituzkeen onurak kontrastatuz. Hau da, bizilagunen irisgarritasuna eta ingurumenari ekarriko lizkiokkeen onurak erkatu beharko liratekeela errepeidearekin jardun aurretik. Era berean, N-1aren berritzeak egungo 2 erreietatik lau erreietara pasatzea suposatuko duela aipatu zen, horrek padurari ekarriko dion lur eremu murrizketarekin. Beraz, 6.2.3 ekintzaren eduki berria honakoa litzateke: "Jaitzubiako padura erditik zeharkatzen duen errepeidea desagertzeko aukera baloratzeko beharrezko ikerketa aurrera eraman".

Jarraian ekintza planeko 7. lerro estrategikoa lantzerako garaian, ura eta hondakinen kudeaketaren inguruko zenbait zalantza argitzeko, Txingudiko Zerbitzuetako Miguel Ángel Muñagorrik eta Josean Rodrigok hainbat azalpen eman zituzten:

- 7.1.1 ekintza "Lehorte garaian, natur baliabide honen hornikuntza bermatzeko asmoz, Jaizkibelgo ur hartuneen proiektua gauzatu": Miguel Ángel Muñagorrik azaldu zuenez, 1986an eraikitako San Anton urtegia txikiegia eraiki zen (eskualdean uraz hornitu behar diren biztanleei erreparatuz) eta hortaz, ur-

hornidura bakarra izanik eta egungo biztanleria kontuan hartuaz, lehor-te-krisi bati aurre egiteko urtegiaren hornidura ahalmena mugatua da. Hori ekiditeko, Domikoko urtegia ere erabiltzen da hornidura gisa. Halere, lehor-te garaietan, udara partean San Antongo urtegiaren ur maila jaisten denean, Jaizkibelgo ur-hartuneetatik ura ateratzen dutela adierazi zuen, batez ere prebentzio irizpide moduan (zehazki, Hondarribiko ur-bilketek hornikuntzaren %25-28a suposatzen dute).

Miguel Ángel Muñagorrik 1988 eta 1989 urteak lehor-te gogorreko urteak izan zirela gogora ekarri zuen eta halako egoeren aurrean erantzun ahal izateko (hau da, biztanle guztien ur hornidura bermatua geratzeko), 1991 urteaz geroztik hainbat neurri abian jarri zituztela aipatu zuen. Neurri horien artean, besteak beste, Domikoko urtegia San Antongo urtegiaren osagarri moduan erabiltzea aipa daiteke, edo Jaizkibelgo ur hartzeak aurrera eramatea aurreko udazkena eta neguan euri gutxi eginez gero. Era berean, 1995. eta 2002. urteetan ere lehor-teak sufritu genituela gogorarazi zuen. Orduz geroztik, San Anton urtegia eta Jaizkibelgo putzuak modu osagarrian erabiltzen dira lehor-te garaiei aurre egiteko. Izan ere, 2002. urteko lehor-teari erreparatuz, Behe Bidasoako eskualdea izan zen lehor-tearen aurrean arazo gutxien pairatu zuen lurraldeko eskualdea, eta hori urtegia eta ur hartuneen konbinazioari esker lortu zen, Miguel Angel Muñagorriren hitzetan. Helburua bikoitza litzateke; batetik, ur hornikuntzaren krisi egoera zorrotzei erantzuna ematea eta bigarrenik, San Anton urtegiaren emaria lehor-te garaietan ere bermatzea.

Aldi berean, Txingudiko Zerbitzuetako ordezkariak aitortu zuten deskribatutako prebentzio neurriez gain, urteetan zehar ur baliabidearen aurrezpena sustatu asmoz, neurri ezberdinak martxan jarri izan direla (inbertsio garrantzitsuekin). Honekin guztiarekin, 1991 urtean eskualdeko batez besteko ur kontsumoa eguneko eta biztanleko 147,87 litrokoa izan bazen, 2007. urtean kontsumoa 124,10 litrora igarotzea lortu zen (eguneko eta biztanleko). Dena den, lehor-te aldi gogorren aurrean aurrezpen neurriak soilik aurrera eramatea nahikoak ez direla onartu zuten eta hori azken 20 urteetako esperientziak erakusten digula. Bestalde, lehor-te aldietan, urtegia hornitzen duen ibaiaren emari ekologikoa mantentzeko ere Jaizkibelgo ur-hartuneak baliagarriak direla berretsi zuten. Azkenik, etorkizunean

Asun Yarzabalek Jaizkibelgo ur-hartuneen proiektua gauzatzeaz ari zirenean, egun dauden ur-hartuneen handitzea edo ur-hartune berriak egiteaz ari ziren galdegin zuen eta era berean proiektu horri dagokion Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Ebaluazioa gauzatu den. Miguel Angel Muñagorrik azaldu zuen aurrez existitzen ziren putzuez gain, ur-hartune berriak egin direla esan zuen, baina azken horiei dagokionez, oraindik edateko uren araztegiara eraman eta banaketa sareari konektatzeko proiektua egiteke dagoela. Ur-hartune berriak egiteko garaian emari gehien eman dezaketen guneak hautatu direla azpimarratu zuen (Jaizkibel mendiarren iparraldeko hegalean daude). Mankomunitatetik azaldu zutenaren arabera, proiektuan ere Eusko Jaurlaritzak, EEEK (Energiaren Euskal Erakundea) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartu dute.

Bestalde, Enara Marcosek galdetu zuen etxeko kontsumoari begira euri ura jaso eta erabili zitekeen. Mankomunitatetik erantzun zitzaion, euri uraren erabilerari bi arazo nagusi ikusten zizkiotela: denboran zehar irregularki euria egiten duela eta jasotako euri ura ez litzatekeela edangarria izango. Halere, etxea eta ontziak

garbitzeko, komunean erabiltzeko, etab. ez zuten arazorik ikusten. Dena den, ez zuen bideragarria ikusten norberak bere etxean bere kontsumorako sistema ezartzea.

- 7.1.2 ekintzaren azpiatal gisa ondorengo jarduera jasotzen zen Ekintza Planaren zirriborroan: "Hornidura sareko ur isuriak antzemateko eta presioa zein ur emaria neurtzeko puntuak ezartzeko asmoz, hornidura sarearen sektorizazioa aurrera eramatea":

Ildo honetan, 90. hamarkadatik hona, urbanizazio berri guztietan ur-sarearen berrikuntza lanak egin direla zaldu zuen Miguel Angel Muñagorrik. Egun, Mankomunitateak 2 tresna nagusi dauzka sarearen kontrola gauzatzeko:

- ✓ Ur biltegietatik ateratzen den kontsumoaren neurketa egitea
- ✓ Etxeetako kontsumoaren gaineko neurketak (kontagailuak)

Ondoren, Europako Batasuneko Uraren Esparru Arteztarauak uraren ziklo integralean aurrezpena eta optimizazioaren alde egiten duela azaldu zuen, eta ildo horri heltzeko, Txingudiko Zerbitzuak ur-sarearen sektorizazioa hobetzeko lanetan diharduela adierazi zuen. Sektorizazioarekin Bidasoa Beheko eskualdea 16 eremu edo sektoretan banatua geratuko da. Era berean, Irun eta Hondarribiko sarea osatzen duten 300 kilometrotik gorako hoditeria ikuskatzeko sistema informatiko bati konektatutako 29 kontrol gune ezarriko direla azaldu zuen (egun 5 kontrol gune daude). Sistema informatiko honekin, ur-banaketa sarean gerta litezkeen arazoak unean bertan ezagutzeko aukera dago eta sarearen mantentze lanak egin behar direnerako, sarearen portaera nolakoa den aldeztatik jakitea baimenduko dela adierazi zuten Txingudiko Zerbitzuetatik. Aipatu behar da Mankomunitateak jadanik esleitu dituen Hondarribiko eta Irungo sareen sektorizazio lanak.

Sektorizazioarekin batera, sare guztiak digitalizatu direla aipatu zuten (orain arte udaletxeek erraztutako planoak erabiltzen zituzten lan hori egiteko). Digitalizazio proiektua martxan jartzeko 8 urte behar izan dira. Honekin batera, ur-kontagailuen irrati bidezko irakurketa egiteko gailuak ezarriko direla aurreratu zuten Mankomunitateak. Sistema honen bidez, uneoroko informazioa eskuratzeko eta denbora tarte baterako konparaketak egiteko aukera egongo da (kontagailuak zenbaki digital batean bihurtu eta Mankomunitateko bulegokoetako ordenagailuetara bidaltzen dira). Sistema hau 3 urteren buruan ezarriko dela argitu zuten. Aipatu beharra dago azken urteetan sarearen ur-ihesak %5 batean jaistea lortu dela eskualdean (egun, %25-%30a suposatzen dute).

- 7.1.8 ekintza "Hondarribiko mendebaldeko eremuko drainatzeen proiektua aurrera eramatea": Txingudiko zerbitzuetatik azaldu zutenaren arabera, eurite sasoian Baserritar Etorbidetik mendialdera eta Itsasargirako errepidean estoldetako estalkiak altxa eta inguruak urak hartzen dituela. Arazo hau ekiditeko, euri-uren bilketarako eta garraiorako estolderia sistema handitzea aurreikusten dute, ur horiek zuzenean itsasora isurtzeko. Lan hauekin batera, ur-zikinen sarea eta euri uren sarea berritzeko lanak egiteko ere aprobeztatuko dute (bi sare horiek ez doaz batera; euri urak itsasora doaz eta ur zikinak araztegiara doaz, dagokion tratamendua jasotzeko).

Proiektu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango du: Eusko Jaurlaritzak kolektore nagusiak egingo lituzke, eta Mankomunitateak, aldiz, sarearen hobekuntza lanak.

- 7.4.12 ekintza "Uren araztegitik eratorritako lohiak nekazal lurretan edo lorezaintzan erabiltzeko aukera aztertu porlanen fabriketan erre beharrean, eta bideragarria izango balitz, lohiak aipatu jardueretan berrerabiltzea": Gaur egun Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak araztegitiko lohiak nekazaritzan erabiltzeko aukerari buruzko erregulaziorik ez duela adierazi zuen Miguel Angel Muñagorrik. Era berean, Gipuzkoako lurren kasuan behintzat, araztegitiko lohien beharrik eta eskaerarik ez dagoela aipatu zuen. Honetaz gain, lohiak lehortu ondoren Rezolako porlan fabrikara eraman eta porlana egiteko erabiltzen direla adierazi zuen (fabrikak lohietako materia xurgatzen du energia ekarpen moduan).

Bestalde, Txingudiko Zerbitzuek uraren ziklo osoarekin lotutako ekipamenduak ikusteko eskola eta taldeei zuzendutako bisita gidatuen zerbitzua ere azaldu zuen. Eta hala nahi izanez gero, Foroko kideei zuzendutako bisita gidatuak antola daitezkeela.

- 7.4.4 ekintza "Herriko zabor ontzien beharrak aztertu eta beharrezko den tokietan ezarri": 3. lan saioan proposatutako ekintza berri honen inguruan, Txingudiko Zerbitzuetatik edukiontzien kopurua egokia zela adierazi zuten. Idazkaritza teknikitik adierazi zitzaion moduan, ekintza ez da ari hiri hondakinen gaikako bilketaz, paperontzietaz baizik. Hori dela eta, "zabor ontzi" jaso beharrean, ekintza honek "paperontzi" aipamena jasoko du.
- 7.4.7 ekintza "Hondakin organikoak kudeatzeko konpostajea martxan jarri": Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostiako Amara auzoan eta beste zenbait herrietan hasitako proiektu pilotuaren emaitzak ezagututakoan, Gipuzkoako Lurralde Historiko osora estrapolatzeko ikerketa bat egiteko asmoa badagoela adierazi zuen Miguel Angel Muñagorrik.
- 7.4.9 ekintza "Olioaren bilketaren maiztasuna handitu eta auzoetara hedatu": Txingudiko Zerbitzuetatik jakitera eman zutenenez, Arasoko zabortegean erabilitako olia biltzeko gune bat jarriko da, eta beste bigarren gune berri bat Hondarribian eraikitzea den Garbigunean. Bestalde, Mondragon Unibertsitateak erabilitako olia biltzeko edukiontzi batzuen esperientzia aipatu zuen. Antza denez, Gipuzkoa osora hedatzeko egitasmoa badagoela eta ziurrenik honen kostua Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko duela azaldu zuen Miguel Angel Muñagorrik. Beraz, Txingudiko Zerbitzuen ustetan, nahikoa litzateke existitzen den olioaren egungo gaikako bilketaren zerbitzua mantentzearekin eta eskualdean eraikitzea aurreikusten diren 2 Garbigune berriekin. Bildutako olioarekin erregai moduan erabiltzen den biodiesel egiten dela aipatu zen.

7.5 programari erreparatuz ("Eraikuntza eta eraispin hondakinen kudeaketa hobetzeko programa") Miguel Angel Muñagorrik azaldu zuenez, hondakin mota

honen kudeaketa ez da Txingudiko Zerbitzuen arduraren ondorio, hondakina sortzen duen enpresarena baizik. Halere, badirudi aurki obra eta eraispentzen hondakinen kudeaketa eta kontrola hobetzeko asmoz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak arazo honi aurre egiteko programa bat abiaraziko duela. Aldi berean, udal lizentziak ere hondakin mota hauen gaineko kontrol eraginkorra gauzatzeko tresna baliagarriak direla adierazi zen.

3- Ekintza Planaren zirriborroko 3. lerro estrategikoaren inguruko eztabaida

Lehen aipatu den moduan, irailaren 16, 17 eta 18an egin ziren Herritarren Foroaren gaikako bileretan ez zuen eman Ekintza Planaren zirriborroko 3. lerro estrategikoa aztertu eta eztabaidatzeko astirik. Gauzak horrela, 6. eta 7. lerro estrategikoren inguruko zalantzak argitzeko Foroaren bilera berezia aprobetxatu zen 3. lerro estrategikoaren inguruko ekarpenak egiteko.

LE 3. UDALETXEAK TOKIKO GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDEKO JARRERA EREDUGARRIA BULTZATZEA

P 3.1. Tokiko enpresen lehiakortasuna bultzatzea eta bertako enpresak sortzeko neurriak garatzeko programa:

3.1.1 "Hondarribiko web orrian ingurumen informaziorako atal bat sortu" eta 3.1.2 "Hondarribiko web orriko Agenda 21en atala berritu, Eskolako A21 ere bertan txertatuz" ekintzen inguruan, Ion Elizalde jakinarazi zuen datorren urteko aurrekontuetan partida bat aurreikusita zuela bere sailak udal web guneko Agenda 21en atala berritzeko.

3.1.3 ekintza ("Hondarribiko udal aldizkarietan aldiro udalerriko Agenda 21en inguruko informazioa barneratzea"): Ion Elizalde adierazi zuen Udal Aldizkarian ingurumen atal egonkor bat sortuko dela, biztanleriari ingurumenarekin lotutako berriak puntualki jakitera emateko.

3.1.4 ekintza ("Udalaren komunikazio baliabideak erabiltzea herritarren artean natur baliabideei buruzko informazioa zabaltzeko"): Guztiek onartu zuten ekintza honek definizioz aurreko hirurak bere barne hartzen zituela. Hortaz, 3.1.4 ekintza programa honetako ekintza bakarra izatera pasako da, 3.1.1 ekintza gisa. Aurrez aipatutako beste hiruak, 3.1.1 ekintza berriaren barruko jarduerak zehatz gisa jasoko dira (hau da, 3.1.1 ekintza berriaren edukiaren betetzen laguntzeko eman beharreko pausoak izango dira). Honenbestez, 3.1.1 ekintza modu honetan geratzeko litzateke:

"Udalaren komunikazio baliabideak erabiltzea herritarren artean natur baliabideei buruzko informazioa zabaltzeko:

- Hondarribiko web orrian ingurumen informaziorako atal bat sortu
- Hondarribiko web orriko Agenda 21en atala berritu, Eskolako A21 ere bertan txertatuz
- Hondarribiko udal aldizkarietan aldiro udalerriko Agenda 21en inguruko informazioa barneratu"

P 3.2 Herritarrek udalerriko ekimenetan parte hartzea sustatzeko programa:

3.2.2 ekintza ("Herritarren parte-hartze foroa sortzea udalerriko bizi kalitatearekin zerikusia duten gaien eztabaidarako, eta organo horrek izaera iraunkorra izatea"): Parte-hartze foroaren inguruan, Ingurumen eta Agenda 21en zinegotziak adierazi zuen Foroak izaera iraunkorra izatea espero dela, besteak beste, urtez urte Tokiko Ekintza Planaren jarraipena egiteko, udalerraren iraunkortasunarekin zerikusia duten gai zehatzak aztertzeko (telefonía antenen gaia adibidetzat jarri zuen), etab.

P 3.3. Herritarrak iraunkortasunaren baloreetan sentikortzeko, hezteko eta eragile guztien erantzukidetzak sustatzeko programa:

3.1 programarekin bezala, programa honetan ere, dauden lau ekintzak bakarrean biltzea egoki ikusi zen. Honenbestez, 3.3.2, 3.3.3 eta 3.3.4 ekintzak 3.3.1 ekintzaren barneko jarduera gisa jasota geratuko liriateke. Era berean, sentsibilizazio eta komunikazio kanpainak beharrean, "ekintzak" moduan jasoko da, hitz horrek kanpainak baino komunikazio nahiz sentsibilizazio ekintza gehiago barneratzen ditu eta. Beraz, 3.3.1 ekintza modu honetan jasoko litzateke:

3.3.1 ekintza "Udalak tokiko garapen iraunkorrarekin zerikusia duten komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak antolatzea:

- Jardunaldi bereziak antolatzea herritarrek garapen iraunkorrarekin zerikusia duten baloreak eskuratzeko eta barneratzeko
- Udalerriko ondarearekin zerikusia duten berriztatze zein proiektu berrietan, horiek gauzatu diren tokietara irteera gidatuak antolatu
- Bidaso bizirik-ekin elkarlanean enpresetan ingurumen jardunbide egokiak sustatu eta ingurumen kudeaketa sistemen inguruko informazioa zabaldu"

P 3.6. Udal eraikinetan eta udal jardueretan natur baliabideen kontsumo arduratsua eta eraginkorra sustatzeko programa (udal jardueran iraunkortasun irizpideak txertatzeko programa):

3.6.2 ekintza ("Udal instalazio ezberdinetan ura eta energiaren aurrezpenerako sistemak ezartzea"): Bertaratutakoek egokitzen hartu zuten ekintza hau 3.6.3 ekintzaren jarduera gisa jasotzea. Honenbestez, 3.6.3 ekintza 3.6.2 ekintza izatera pasako litzateke, eta ondorengo jasoko luke:

"3.6.2 ekintza: Baliabideen kontsumo handiena duten udal zerbitzuak identifikatzea ondoren horietan ingurumen kudeaketa sistemak ezartze aldera:

- EEerekin elkarlanean (Energiaren Euskal Erakundea), Udaleko eraikinetan energiaren kontsumoari buruzko ikuskaritza aurrera eramatea
- Udal instalazio ezberdinetan ura eta energiaren aurrezpenerako sistemak ezartzea"

3.6 programak eraikin publikoetan hondakinen kudeaketa egokia barnera dezan, bertaratutakoek izena birformulatzea eskatu zuten. Hortaz, 3.6 programaren izena era honetan jasoko litzateke: Udal eraikinetan eta udal jardueretan hondakinen kudeaketa egokia eta natur baliabideen kontsumo arduratsua eta eraginkorra sustatzeko programa (udal jardueran iraunkortasun irizpideak txertatzeko programa).

Era berean, programa honi lotutako bi ekintza gehigarri proposatu ziren:

3.6.4 ekintza "Udal eraikinetan hondakinen kudeaketa egokia egitea"

3.6.5 ekintza "Udal langileen artean ingurumen praktika egokiak zabaltzea"

Bilera 20:45etan amaitu zen.

Hurrengo orrietan jasotzen da 3. lerro estrategikoari dagozkion programa eta ekintzen idazkera berria (urdinez agertzen dira aldaketaren bat jasan duten ekintza nahiz programak):

HONDARRIBIKO IRAUNKORTASUNERAKO TOKIKO EKINTZA PLANA			
ZENBAKIA	LERRA ESTRATEGIKOAREN IZENBURUA		
LE 3	UDALETXEAK TOKIKO GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDEKO JARRERA EREDUGARRIA BULTZATZEA		
	PROGRAMA ZENBAKIA	PROGRAMAREN IZENBURUA	
	P 3.1	Herritarrekiko komunikazioa eta komunikazio gardentasuna hobetzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 3.1.1	Udalaren komunikazio baliabideak erabiltzea herritarren artean natur baliabideei buruzko informazioa zabaltzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Hondarribiko web orrian ingurumen informaziorako atal bat sortu - Hondarribiko web orriko Agenda 21en atala berri, Eskolako A21 ere bertan txertatuz - Hondarribiko udal aldzkarietan aldiro udalerriko Agenda 21en inguruko informazioa barnerratu
	P 3.2	Herritarrek udalerriko ekimenetan parte hartzea sustatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 3.2.1	Udal web orrian herritarrek beren ekarpenak egin eta udalari bidaltzeko berezko atal bat sortzea
		E 3.2.2	Herritarren parte hartze foroa sortzea udalerriko bizi kalitatearekin zerikusia duten gaien eztabaidarako, eta organo horrek izaera iraunkorra izatea
		E 3.2.3	Eskolako A21 programaren baitan eskolen arteko foroak sortzea bultzatzea
		E 3.2.4	Agenda 21en prozesua eta Eskolako A21en arteko koordinazioa bultzatzea
	P 3.3	Herritarrak iraunkortasunaren baloreetan sentikortzeko, hezteko eta eragile guztien erantzukidetzaren sustatzeko programa	
	EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA	
	E 3.3.1	Udalak tokiko garapen iraunkorarekin zerikusia duten komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak antolatzea: <ul style="list-style-type: none"> - Jardunaldi bereziak antolatzea herritarrek garapen 	

LE 3			<p>iraunkorarekin zerikusia duten baloreak eskuratzeko eta barneratzeko</p> <ul style="list-style-type: none"> - Udalerriko ondarearekin zerikusia duten berriztatze zein proiektu berrietan horiek gauzatu diren tokietara irteera gidatuak antolatu - Bidasoa bizirik-ekin elkarlanean enpresetan ingurumen jardunbide egokiak sustatu eta ingurumen kudeaketa sistemen inguruko informazioa zabaldu
	P 3.4	Tokiko Agenda 21 programa iraunkortasunaren aldeko etorkizuneko udal estrategia moduan finkatzeko eta udal-kudeaketan errotzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 3.4.1	Udal langileari eta ordezkari politikoak duten pertsonen zuzendutako formazio saioak antolatzea
		E 3.4.2	Tokiko Agenda 21ekin zerikusia duten dokumentuak langilego guztiak eskuragarri izateko tresna bat sortu edo intraneta aprobetxatu
		E 3.4.3	Agenda 21 eta ingurumen batzordeak udal barruan Tokiko Agenda 21en aldiroko jarraipena egitea
	P 3.5	Garapen iraunkorraren bidean lan egiten duten beste udalerrri edo gobernu erakundeekin lankidetzan indartzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 3.5.1	Hondarribiko udala <i>Udalsarea 21</i> en sartzeko eta bertan partaidetza aktiboa izateko pausoak ematea
		E 3.5.2	Eskualdeko gainerako udaletxe eta entitateekin iraunkortasun prozesuak elkarren artean koordinatzea
	P 3.6	Udal eraikinetan eta udal jardueretan hondakinen kudeaketa egokia eta natur baliabideen kontsumo arduratsua eta eraginkorra sustatzeko programa (udal jardueren iraunkortasun irizpideak txertatzeko programa)	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 3.6.1	Udal erosketa eta kontratazio jardueren iraunkortasun irizpideak txertatzen joatea (produktuak, lan kalitatea, Berdintasun Legearen sustapena, ...)
	E 3.6.2	Baliabideen kontsumo handiena duten udal zerbitzuak identifikatzea ondoren horietan ingurumen kudeaketa sistemak ezartze aldera:	

			<ul style="list-style-type: none"> - EEerekin elkarlanean (Energiaren Euskal Erakundea), Udaleko eraikinetan energiaren kontsumoari buruzko ikuskaritza aurrera eramatea - Udal instalazio ezberdinetan ura eta energiaren aurrezpenerako sistemak ezartzea
		E 3.6.3	Udalerriko biztanleen bizi kalitatean eragina izan dezaketen plan eta proiektuetan ingurumen irizpideak sartu, horretarako ingurumen teknikariaren parte hartzea bultzatuz
		E 3.6.4	Udal eraikinetan hondakinen kudeaketa egokia egitea
		E 3.6.5	Udal langileen artean ingurumen praktika egokiak zabaltzea
	P 3.7	Bidezko garapenerako lankidetzaren sustatzeko programa (iraunkortasun globala sustatzeko programa)	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 3.7.1	Herriko eta eskualdeko entitateekin elkarlanean, garapen iraunkorrarekin zerikusia duten proiektuak aurrera eramatea garapen bidean dauden herrialdeekin